

2010-11-29

Abenduko zubia Sagardoetxean: Barrikotea eta gaztainak



[Sagardoetxea, Sagardoaren Museoa](#)

Sagardoetxea Museoan, sagardo berriaren etorrera ospatu nahi degu eta abenduaren 4tik 8ra sagardoaren uzta berridun barrikoteak eskeiniko dizkiegu bisitariei gaztainekin lagunduta.



Barrikoteak, lehen uztaren dastaketan dauka jatorria. Senitartekoek barrikote bat erosten zuten eta afari bat antolatzen zuten sagardo berria dastatzeko.

Usadio horrek bizirik jarraitu du gaur egunerarte eta abenduko zubi honetan esperientzia hau bizitzeko aukera eskeiniko dugu Sagardoetxean.

Ordutegiak:

Abenduko zubian museoa egunero irekia egongo da: Abenduak 4,5, 6, 7 eta 8.

Ordutegia: 11:00-13:30 eta 15:30-19:00.

